# EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KOMIKI LEHIAKETA

### 1919: EUSKALTZAINDIAREN SORRERA.

Hiru helburu ezarri zitzaikion akademiari: ortografia arautzea, hiztegia zehaztea eta Euskal Herri osorako literatura hizkera eraikitzea, baina ez zuen arrakasta handirik izan.





### 1950EKO HAMARKADA:

Espainiako garaiko gobernuari (Franco diktatoreari) nazioartean jarrera irekia izatea eskatu zitzaion, eta horrek eragina izan zuen garaiko euskalgintzan. Jarrera-aldaketa hori probestu nahian, kultura-arlora ere hedatu zen garaiko egoera iraultzeko gogoa.

### 1964KO BAIONAKO BILTZARRA:

Txillardegiren gidaritzapean, herrialde gehienetako ordezkariak elkartu ziren eta euskara arautzea helburu zuen txosten bat bateratu zuten. Urrats handia izan zen euskara batuarentzat.



### 1968: ARANTZAZUKO BILERA:

Euskara Batuaren sorrera. Mitxelenak euskara batuaren txostena aurkeztu zuen, eta onartu egin zen.



### 1968-1978:

Bergarako eta Arrasateko bilkurak. Arantzazuko txostena onartzearekin bateratsu sortu ziren desadostasunak ere. Entzutetsuena H-aren gaineko arauek eragindakoa izan zen, gizartean bitan banatu baitzuen: aldekoak eta kontrakoak.



## ETA ZURE HERRIAN ZEIN IBILBIDE IZAN DU EUSKARA BATUAK?

# EUSKARA BATUA

ikastolenelkartea